

HAUSNARKETA

Musikaria vs. Artista

Gaur egun, artearen eta musikaren munduan murgilduta, gero eta ohikoagoa da "musikoa" eta "artista" terminoak elkarri nahastea edo sinonimotzat hartzea. Hala ere, bi kontzeptu hauek ez dira zertan gauza bera izan, eta bakoitzak bere ñabardurak eta esanahi propioa dauzka.

Lehenik eta behin, musikoa den pertsona bat, normalean, prestakuntza formala eta teknikoa jaso duen norbait izaten da. Hau da, bere karrera akademikoan eta profesionalean zehar musika ikasketak burutu dituen, teorialik interpretaziora, konposiziotik praktikara. Musikaria izan daiteke, interprete bat, konpositorea, edo musika tresna baten aditua dena.

Aldiz, "artista" terminoa azken urteotan asko zabaldu eta eraldatu da. Gaur egungo gizartean, badirudi edonor "artista" izan daitekeela: telebista saioetan parte hartzen duten pertsonak, esate baterako, Operación Triunfo, La Voz, sare sozialetan sortzaile diren pertsonak, edo, besterik gabe, ikusgai dauden eta arreta pizten dutenak. Testuinguru honetan, artistaren figura ez da zertan musika edo teknika konkretu batekin lotzen; aitzitik, adierazpen gaitasuna, sormena eta ikuspegi pertsonala dira funtsezko ezaugarriak. Artistak, bere identitate propioaren bidez, mezu bat komunikatu nahi du: gizartearen aurkako kritika, hausnarketa existentziala edo emozio pertsonalen transmisioa.

Honek galdera bat planteatzen digu: Musiko bat artista izan daiteke? Eta artista bat musiko?

Musikariei dagokionez, noski artista bihur daitezke, bere musika teknika sormenarekin eta adierazpenarekin uztartzen badu. Adibidez, Olaia Inziarte eta Izaro bezalako sortzaileak hasieran musikari gisa ezagutu genituen, baina euren musika bidez narratiba bat eraiki dute, estetika propio bat landu eta ikus-entzuleekin konexio emozionala bilatu dute. Horrek artista izatera eraman ditu. Artista izatea ez da bakarrik ondo abestea edo instrumentu bat menperatzea, baizik eta zerbait esatea, eta hori modu pertsonal eta originalean egitea.

Bestetik, ez da derrigorrezkoa artista bat musikoa izatea. Gaur egun performance edo ikus-entzunezko lan askotan ikus dezakegu artistak direla, baina ez dute musika ezagutza teknikorik. Baliteke musika erabiltzea euren lanetan, baina ez dute zertan musika konposatu

edo interpretatu. Hala ere, emozioa, mezua eta presentzia eszenikoa erabiltzen dituzte publikoarekin konektatzeko.

Musikoa izatea teknika eta formakuntza eskatzen duen diziplina da, eta hortaz, musikari batek bere sormen eta adierazpen gaitasuna garatuz artista bihurtzeko aukera dauka. Aldiz, artista bat ez da zertan musikoa izan, izan ere, musikari izateko prestakuntza zehatz eta sakona behar da, eta hori ez dute artistek beti. Beraz, musiko bat artista izan daiteke, baina artista bat ezin da musiko izan, baldin eta ez badu musika ezagutzarik eta prestakuntzarik.